

## Akolara larunbatean trikuharri eta sarobeak ikustera

■ Akolako da Euskal Herrian dagoen 4000-5000 urteko hilerri garrantzitsuenetakoa ■ 09:00etan Larregainen zita; 13:00a alderako, etxera ■ Gia: mapagilea.



Akolako trikuharria, atzean Urdaburu duela. Ondoan harrespila dago.

MAPA toponimiko berria aurkeztu zenean, herria ezagutzeko eskurtsioa agindu zen abenduaren 2rako: Arrondo mendiari buelta Luis del Barrio mapagilearen esplikazioak entzunez. Ibili ahala, bidetik ikusten diren mapako puntuak erakutsi, inguruko paisajea esplikatu, istori zaharrek entzun...

### TRIKUHARRIAK ETA SAROBEAK

Trikuharriak neolito garaiko hilerriak dira; gizakia lurretik bizi eta animaliak zaintzen hasi zenekoa. Euskal Herrian barrena dezente daude, baina, Akolako, orain dela 4000-5000 urte bitartekoa da eta aztarna gehientsuena gordetzen dituen omen da. Sarobeak, berriz,

lur saila mugatzeko sistema da; normalean ganadua eta ardiak ibiltzeko izaten da. Akolako 13garren medekoa da.

### EDOZEINENTZAT

Barrio mapagileak esan digunez, denentzako moduko ibilaldia da: umeak, helduak... patxada-patxadan joango dira-eta. □

### 2001 URTEKO UDAL AURREKONTUA

## Aurretik lotutako inbertsioak onartu ditu asteazkeneko batzarrak

■ Beste proiektuak 1etatik 14ra jarri zituen, lehentasunaren arabera ■ 20 lagun inguru bildu ziren ■ Orain, oposizioari eta batzarrari aurkeztu, eta plenora.

2001 urteko inbertsio publikoak erabaki dira. Lehendik konprometitua zeuden 9 proiektu aurrera ateratu ziren: Liburutegia osatzea, Alde Zaharra berri-tzea, ikerketa eta proiektuak, kaleak asfaltatzea, baserri bideak, industrialdeko kapitala, obretako lan taldearentzat materiala, kontenedoreak eta Mañe Flaquerreko alkantariak.

### AKARREGIKO BIDEA ETA ROKODROMOA

Bi proiektuok zerrendatik kendu egin ziren. Akarregiko bidea autobidea egiten ari direnek egingo dute; rokodromoa berriz, aurtengo diruarekin egingo da.

Beste proiektuak sobratzen diren 30 milioiak gastatu arte egiten hasiko dira.

### PLENORA

Plenora joan aurretik, hurrengo pausoa da oposizioari aurkeztekoa. □

**MUEBLES HERNANI**  
Esposizio aldatagatik,  
**Beherapen bereziak.**  
**HERNANI ALTZARIAK, Gartzia Goldaraz 8 HERNANI**

**winterthur**  
**ASEGURUAK**  
**Esna!- Agentzia, C.B.**  
Aseguru agentzien Elkarte - Inskripzioa zkia 20-2005  
**Jose Joakin Esna! Muguruza**  
Aita Kardaberaz, 68  
Tel.- Faxe 943 55 06 28  
20120 Hernani

### HIESAREN KONTRAKO EGUNA

## Hernanin 100 bat lagunek du SIDAren birusa

■ Jiringilaz gero eta jende gutxiago kutsatzen da ■ kondoirik gabe larrua jota, gero eta gehiago.

HIESAREN aurkako eguna da gaur mundu osoan. Hernanin ere Hiesak egin du bere kabia eta Ongintzako Drogo-menpekotasun eta Prebentzio sailetik jasotako datuak diote zabaltzen ari dela.

### KONDOIRIK GABE

“Gazteek ba omen dakite kondoa erabili behar dela, baina, hori teoria hutsa da” Txus Congilek. “Lehen aldian ez da ezer gertatzen, horrela eginda ez... eta azkenean kutsatu.”

**OFIZIALKI 19 HILDAKO**  
Ofizialki, 19 dira Hiesagatik hilak -heroinazeleak gehienak-; berez, ordea, dezentez gehiago omen dira sexu harrenamen bidez kutsatu eta hildakoak. Baina, datu horiek sekretuak izaten dira.

### ONGINTZARA JO

Bestalde, orain 2 urte arte herrian bazen Hiesaren kontrako taldea: *Nahia*. Orain, informazioa edo laguntza nahi duenak jo dezala Ongintzara. □

### AEK-REN AURKAKO AUTO JUDIZIALA

## Juan Mari Larrartek hiru aste barru deklaratu du

■ Atzeratu egin da, fiskalaren andrea ospitalean haurdun dagoela-eta ■ Mobilizazioak egin egingo dira.

JUAN Mari Larrartek gaur 10:00etan kontzentrazioa deklaratu behar zuen Entzutegi Nazionalean, ETari blada eta manifestazioa lagundu izanaren akusaziopean. Orain, hilaren 22ra Molotoff Irratiak gaiaren atzeratu diete dekaratzeko inguruko saio berezia egingo eguna. AEK mobilizazioak du goizeko 10:00etan (FM mantentzeko asmoa du: 99.2an). □

## Bikote Dantza Lehiaketa igandean Plaza Berrin

KRISKITINA Dantza taldeak 14 urtez azpikoentzako Bikote Dantza Txapelketa antolatu du dotarren iganderako. Lau hernaniar izango dira tartean: Mikel eta Nerea Lasa, Aimar Abad eta Lierni Martiarena. Eguerdiko 12:00etan hasiko da. Eurria ari badu Sandiusterrin egingo da. □

### ASTEBURUKO ZINEA BITERIN

## 'Fortaleza infernal 2'

Ostirala: 22:30. Larunbata: 17:00-19:30-22:30. Igandea: 17:00-19:30.

**Skoda Fabia**  
  
FABIA bat 1.375.000 ptatik.\* (8.263,99 euro\*)  
\* Penintsula eta Baleareto gomentatutako prezioa. \*koda Fabia Classic 1.4 60 CV, Gaurra, zerga eskaintza bereziak, plana inkluidos. Stockeko autoentzat baliozgarria. 1 euro=166,386 pt.  
**MENABI**  
Txingurri pasealekua, 26 Herrera auzoa DONOSTIA Tel. 943-40 42 4

## Rokodromoari buruzko bilera gaur

■ Etxeberrin egingo dute Rokodromo berria ■ Bilera, Tilosetan, 20:00etan.



Hernaniko eskalatazaileak Antziolan ezin kabituta.

HERNANIKO eskalatazaileek bilera egingo dute. Udalak Etxeberriko 9 blokearen azpikaldean dagoen lokala utzi diete, giltza dagoeneko badute eta orain lanean hastea falta da.

### LANERAKO JENDEA

Lehenengo, lokala egokitu (arraunekoek erabilia baita) eta ondoren hasiko dira rokodromo berria egiten. Horretarako lanerako prest dagoen jendea eskatzen dute; ez eskalatzera joango dena bakarrik. Berria egin bitartean Antziolako rokodromoan zintzilikatzen dira Hernaniko *armiar-mak*, baina dagoeneko oso txikia gelditu da pareta. □

### TXANTXANGORRI ELKARTEA

#### Gazteak Leizarana doaz arrantzura

GAZTEEK gaur bukatuko dute arrantzurako amukinak egiteko ikastaroa. Asteburuan Leizarana joango dira praktikak egitera.

#### EHIZA TXAPELKETA

Abenduaren 10 eta 17an jokatuko da Epeleerka eta Uxo-koerrek. Parte hartu nahi duten bazkideek hilaren 7a baino lehen pasa beharko dute soziedadetik. □



Gazte bat Txantxangorri, amukinak egiten ikasten.

### ASTE BURUKO PARTIDUAK (ESKOLARTEKO KIROLA)

#### LARUNBATA

##### ■ ESKUBALOA

*Mutil alebinak:* (Urnietan)

Egape A - Urumea

*Mutil alebinak:* (Urnietan)

Egape B - Elizatxo A

*Benjaminak:*

(09:30etan Kiroalde.)

Elizatxo B - Langile A

*Benjaminak:*

(10:15etan Kiroalde.)

Langile B - Langile C

*Benjaminak:*

(11:00etan Kiroalde.)

Urumea - Elizatxo A

■ **ERRUGBIA**

*Benjaminak:*

(10:15etan Kiroalde.)

Talde guztiak Landaren

##### ■ **BOLEIBOLA**

*Neska kadeteak:*

(Donostian)

Arantzazuko - Langile

*Mutil kadeteak:*

(Donostian)

Oe Oe@ Ik - Urumea

*Neska infantilak:*

(11:00etan Kiroalde.)

Urumea-Andoingo Ik

*Neska infantilak:*

(Billabonan)

Ernioeba - Langile

*Neska alebinak:*

(11:00etan Kiroalde.)

Elizatxo A - Urumea

*Neska alebinak:*

(11:30etan Kiroalde.)

Langile A - Langile B

##### ■ **FUTBOLA**

*Mutil infantilak:* (09:00etan

Zubipen)

Urumea-Leitzarar

*Mutil infantilak:*

(Andoainen)

Andoingo ik - Langile

■ **SASKIBALOA**

*Alebinak:* (Donostian.)

Col. Aleman-Inmaculada

*Alebinak:* (Donostian.)

Ibai D - Langile B

*Alebinak:* (Donostian.)

Herrera-Langile A

■ **PELOTA**

*Infantilak:*

(09:10etan Kiroalde.)

Langile 2 - Langile 1

*Infantilak:*

(09:30etan Kiroalde.)

Elizatxo 1 - Langile 3

*Infantilak:*

(09:50etan Kiroalde.)

Langile 2 - Elizatxo 2

*Infantilak:*

(10:10etan Kiroalde.)

Langile 1 - Elizatxo 3

*Alebinak:*

(10:30etan Kiroalde.)

Langile 2 - Urumea 1

*Alebinak:*

(10:50etan Kiroalde.)

Langile 3 - Elizatxo 3

*Alebinak:*

(11:10etan Kiroalde.)

Urumea 2 - Langile 1

*Alebinak:* (11:30etan

Kiroalde.)

Elizatxo 2 - Langile 4

*Alebinak:* (Andoainen.)

La Salle - Langile

### ■ HITZ BITAN



Ezkerretik: Rebollo, Grigsby -Nikaraguako Popol'na Fundazioko burua-, bere kideak eta alkatea, atzo bazkalurreko bisitan.

#### ✓ **NIKARAGUATIK**

**Formazio eta hezkuntza proiektuen aldeko apustua.** Popol'na Fundazioko burua herriko udal ordezkariekin bildu zen. Atzo, Nikaraguako herriari nola eta zertan lagundu litekeen hitz egin zuten. Proiektu konkretuetan sartu gabe, Hernaniko Udalak, batez ere, formazio eta hezkuntza proiektuetan laguntzeko borondatea azaldu du.

#### ✓ **HIRIGINTZA BATZORDEA**

**Lau eskari aztertuko dira.** Antziola Berri eta Sta Barbarako biletan bizi ahal izateko bahimen eskariak eztabaidatuko dira. Elizatxo 7 etxean berritze lanak egiteko eta *Azkar* garraio enpresak Lizarraga poligonoan almazena jartzeko egindako eskariak dira aztertuko diren beste bi puntuak. Gaur 13:00ean.

#### ✓ **ERRUGBIA**

**Gaztetxoak Miarritzera partidua ikustera, gaur.**

Hernani eta Miarritzeko Errugbi klubek harreman ona izen dute aspaldian. Gaur, Miarritzeko taldeak gonbidatuta, Frantziako Liga nagusiko partidua ikusiko dute errugbilari *gaxteek*: Miarritze-Olinpic Narbon. 17:30etan gelditu dira Zinkoenean.

#### ✓ **MUS TXAPELKETA ERENOTZUN**

**Irrintzi tabernan izaten da ostiralero 22:30etan.**

Lehenengo astean hasi zen eta maiatza alderarte jokatuko da; bai liga bai eguneroko saria. Ostiralero bikote txapeldunak arkume bat izaten du saria; liga bukaeran puntu gehien duenak sari berezia izango du. Izena emateko 22:00ak aldera azaldu.

#### ✓ **PELOTA**

**Erroizeneak gaur jokatuko du ETB-DV sarian.**

Argote bikote duela ari da jokatzen; lehenengo bikotea eliminatu dute, baina badirudi gaurkoa gogorragoa dela: Huarte Arakilgo Huarte eta Gorriti. Irabaziz gero finalurrekoetan liriteke. Partidua Abadiñoko Maitiena auzoan izango da 20:00etan. □

### AGENDA

#### ❖ **ERAKUSKETA**

*Alberto Elosegiren argazkiak.*

Txema tabernan.

*Vietnam-i buruzko argazki erakusketa*

Zumardi jatetxean.

#### ❖ **ZINEA**

**Fortaleza Infernal 2**

Biterin, 22:30etan.

### ZERBITZUAK

#### ☎ **TELEFONOAK**

▶ Taxiak: 943 550093  
 ▶ Udaltzaingoa: 943 333288  
 ▶ DYA: 943 464622  
 ▶ Autobusak: 943 556662  
 ▶ Anbulatorioa: 943 557750

#### ☎ **FARMAZIAK**

▶ Egunez: Irigoyen  
 Elcano, 2  
 ☎ 943 552087  
 ▶ Gaez: Elizondo  
 Andoain. Zumea, 30  
 ☎ 943 592629



Laguntzaile:

**Hernaniko Udala**

Laguntzaile:



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
 Kultura, Euskara, Gazteria eta Kirol Departamentuak

**ITXASPE**  
 ARRANDEGIA  
 Antziola 5 - Tel. 943 330 365  
 20120 HERNANI

SEXOLOGIA  
**SUSTRAIA**  
 HEZKUNTZA, TERAPIA ETA IKERKETA SEXOLOGIKOAREN SUSTAPENERAKO ELKARTEA  
 Hezkuntza - Sexu orientabidea - Sexu terapia - Masaje ikastaroak - Sexologia formakuntza eskola  
 Elizatxo 77-2. ☎ 943 55 09 17  
 20120 Hernani

**Jatetxea**  
  
**Venta Berri**  
 Arano - Nafarroa  
 (948) 51 40 18  
 LARUNBATETAN ITXITA